

Argazki numerikoak

Orain arte argazki numerikoak ateratzeko aparatuek ez dute arrakasta handirik izan, eta arrazoiak bi izan dira. Bate-tik, profesionalentzat behar besteko kalitate-rik ez dute, eta bestetik argazkizale arruntarentzat aparatu garestiegia-ak dira. Kodak etxearekin elkarlanean Apple-k merkaturatu duen "Quicktake 100" makina ez dakigu arazoa konponduko duen. 125.000 pezeta inguru (5.000 libera) balio du aparatuak eta ordenadore-pantailan oso kalitate oneko irudia lortzen da. Papereko irudia ordea, ohizko ar-



Kodak etxearekin elkarlanean Apple-k merkaturatu duen "Quicktake 100" makina.

gazkiak baino garestiago ateratzen da. Dena dela, Quicktake makinak Macintosh ordenadoreari begi bat eskaintzen dio eta hartzen dituen irudiak testuan txertatzeko aukera dago. Bestetik, Fujitsu etxearer laster plazaratzekoa

da argazki numerikoak egiteko bere makina. Zooma berekin izango du eta 26 milioi koloretan 390.000 puntuko bereizmena izango du. PCMCIA txartelean 10-40 argazki ateratzeko gai da. Prezioa du makina honek oztopo nagusia: 750.000 pta. edo 30.000 libera ingurukoa, hain zuzen.

Hamar telebista-kanal telefono-haritik

Konpresio numerikoan espezializatutako New Yorkeko elektronika-entrepresa batek dioenez, telefono-hari batetik hamar telebista-programa bidali ahal izango dira. Telefonoz egiten diren elkarrizketetan batezbeste linean zehar garraiatzen den informazio-kopurua hutsaren hurrengoa da hamar programen telebista-seinaleek behar dutenarekin konparatuta. Horregatik telebista-programak ezingo dira zentral elektroniko asotan zehar distantzia luzetara igorri, baina zuzeneko lotura duten bi punturen artean bai. Baldintza horietan ohizko telefono-elkarrizketetan baino informazio-kopuru handiagoa transmititu ahal izango da, eta konpresio-algoritmo bereziei esker, bideo-seinaleak garraiatu ahal izango dira.

Konpresioak hasierako seinalea aldatu egingo du, noski, baina azkenean lortuko den irudiarren kalitatea VHS magnetoskopiaok ematen duenaren parekoa izango da. Publiko arruntarentzako emisioa izango da, beraz, eta ez kalitate handia behar du ten profesionalentzat.

Dena den, telefono-hariz egiten den transmisio honek komunikazioa bi norantzatan egiteko aukera ematen du. Ikusleak, beraz, telefono-teklatura edo horretarako propio diseinatutako teklatura erabili ahal izango du programa emititzen duenarekin "elkarrizketatu" ahal izateko.

Sistema proiektatu dutenek diotenez, telefono-kableek kalean lurpean hogeita sei linea izaten dituzte eta aldi berean bi norantzetako hogeita hamar programa transmititu ahal izango dituzte.

Estatu Batuetako telefono-sare nagusiak dituzten Bell Telephone, Gulf & Western eta beste zenbait konpainia erakarri ditu proiektu interesgarri honek.

Concorde hegazkinaren ondorengoa

Hurrengo urriaren 25ean, Frantziako Toulousen bigarren belaunaldiko abioi supertsonikoari



Argazkian ikusten den Concorde hegazkinaren ondorengoa prestatzeko bilera egingo dute hurrengo urriaren 25ean Frantziako Toulousen. British Aerospace, Deutsche Aerospace eta Aérospatiale erakundeek parte hartuko dute.

buruz bilera interesgarriak izango dira. Hegazkingintzan diharduten British Aerospace, Deutsche Aerospace eta Aérospatiale erakundeek parte hartuko dute. Hauek ados daude elkarlanean hegazkin supertsonikoari buruzko ikerketa-programa bideratzeko. Materialak, aerodinamika, sistemak eta motorizazioa izango dira ikertuko diren lau arloak.

Proiektuaren helburua 10.000 kilometroan Mach 2-ko abiaduran 250 bidaiari eramango dituen hegazkina da, hau da, Concorde-aren ondorengoa. 2020. urtean honelako 500-1000 hegazkin beharko direla begiz jotzen da, eta Europako hegazkingileek berentzat nahi dute merkatu hori.

